

URREZKO

REVISTA DE CELEDONES DE ORO



nº13



**IÑAKI LASA NUIN,
GASTEIZKO OLENTZERO**

Editor / Argitaratzailea:

Celedones de Oro /Urrezko Zeledonak

Autor del texto / Testuaren egilea:

Iñaki Lasa Nuin

Traducción al castellano:

Ane Pedruzo Redondo

Foto de portada / Azalaren argazkia:

El Correo

Fotos / Argazkiak:

Diversos autores, referenciados en cada una de ellas.

Resto de Iñaki Lasa Nuin.

Maquetación / Maketazioa:

PRN Sistemas

Imprenta / Moldiztegia:

Irudi

Año/Urtea:

2023

Celedones de Oro / Urrezko Zeledonak:

celedonesdeoro@gmail.com

<http://celedonesoro.blogspot.com>



PRÓLOGO

Hemos llegado al número 13 de nuestra revista y esta vez, por encima de toda superstición, presentamos a un personaje mítico cual es Olentzero, corporeizado en su versión gasteiztarra por quien durante veintiseis años encendió todos los 24 de diciembre la ilusión de miles de niños, jóvenes y no tan jóvenes.

Celedones de Oro quiere con este nuevo número de su revista rendir un pequeño homenaje a Iñaki Lasa Nuin, quien encarnó en nuestra ciudad de forma magistral la figura del mítico carbonero.

Y si especial es el personaje elegido, también lo es el haber decidido presentar el monográfico en versión original en euskera. Estamos convencidos de que se avanza en la normalización lingüística de nuestro país y Celedones de Oro da un paso más en esa dirección. El lector no euskaldun podrá acceder al contenido en castellano mediante un código QR preparado al efecto.

Igualmente, se ha producido y presentado un documento audiovisual sobre el tema, realizado por nuestro socio Eloy González Gavilán. Nuestro agradecimiento a éste y a quienes ha participado en el documental.

Gracias al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y a la Fundación Vital podemos ofrecer estos documentos para el disfrute de toda la sociedad.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
Presidente de Celedones de Oro

HITZAURREA

Gure aldizkariaren 13. zenbakira iritsi gara eta oraingoa, sineskeria guztien gainetik, Olentzero den pertsonaia mitikoa aurkezten dugu, bere gasteiztar bertsioan hogeita sei urte luzez gorpuztu duen pertsonarekin, abenduero milaka ume, gazte eta ez hain gazteen ilusioa piztu zuena.

Elkartearen aldizkariaren ale berri honenkin, Urrezko Zeledonek omenaldi txiki bat egin nahi diote Iñaki Lasa Nuini, mende laurden luze batez gure hirian ikazkin mitikoaren figura maisuki gorpuztu zuena.

Eta aukeratutako pertsonaia berezia bada, monografia euskarazko jatorrizko bertsioan aurkeztea erabaki izana ere apartekoa da. Gure herriaren hizkuntza-normalizazioan aurrerapausoak ematen ari direla sinetsita gaude eta bide horretan beste urrats bat ematen dute Urrezko Zeledonek. Euskaldun ez den irakurleak gaztelaniazko edukietara sartzeko aukera izango du horretarako presatutako QR kodea erabiliz.

Era berean, gaiari buruzko ikus-entzuzko dokumentu bat egin eta aurkeztu da, gure bazkide Eloy González Gavilánek egina. Gure esker ona berari eta dokumentalean parte hartu dutenei.

Gasteizko Udalari eta Vital Fundazioari esker eskain ditzakegu dokumentu hauek gizarte osoaren gozamenerako.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
Urrezko Zeledonen Lehendakaria



AURKIBIDEA

SARRERA	7
1. atala	
MATXINBENTA	8
2. atala	
ARANTZAZU - SEMINARIOA	13
3. atala	
ERRIBERRI – OLITE	18
4. atala	
BILBO - ALGORTA - SAN NIKOLAS IKASTOLA	22
5. atala	
GASTEIZ – DURANA – IKASBIDEA IKASTOLA	26
6. atala	
OLENTZERO	31
7. atala	
AZKEN URTEAK	35



traducción del texto en castellano



IÑAKI LASA NUIN, GASTEIZKO OLENTZERO



El Olentzero Iñaki escuchando a una niña (Argz: Lorea Fuertes)



SARRERA

“Hurrengo “Urrezko” aldizkaria zeuri eskaintzea onartu du Urrezko Zeledonon Batzarrak aho batez”. Horrela adierazi zion bertako Lehendakariak. Baita “zuri zer iruditzen zaizu?” galdetu ere. Iñaki harri eta zur geratu omen zen, hitzik gabe momentuan.

“Baina, nolatan niri? zer egin dut bada Gasteizen alde? ezer berezirik egin al dut bada?” Horrelako galdera mordo bat zetozkion Iñakiri burura. Josemari Velez de Mendizabalen erantzuna beti berdina: “26 urte bete dituzu, urterik galdu gabe, Olentzeroren azalean Gasteizko haurrak goxatzen, eta guretzat merezimendu guztiak irabazita dituzu horretarako eta gehiagorako ere”. Alferrekoa zen behin eta berriro halako lotsa eta kezka agertzea, berak, Josemarik, nonbait garbi zeukan hurrengo “Urrezko” aldizkaria Iñakiren inguruan ardaztuko zela. Astebeteko epea eskatu zion Iñakik erabakia hartu baino lehen apur bat pentsatzeko, eta horretan geratu ziren.

Ez zen aste erraza izan Iñakirentzat. Hurrengo egunetan makina bat buelta eman zizkion bere buruari, baita garunak dantzan jarri ere, baietza edo ezetza erabaki artean. Burura etortzen

zitzaien lehenengo gauza: zenbat eta zenbat pertsona ote dauden Gasteizen hark baino mila aldiz meritu handiagoak dituztenak. Azken batean oso gustura egin izan duen ekintza bat izan da eta urtean behin egitekoa gainera. Olentzero arlotearen papera egiteagatik gehiegitxo iruditzen zitzaion.

Buelta asko eman ondoren, baieztatuaren aldeko arrazoi pare bat bazeudela ondorioztatu zuen. Bata, Olentzero pertsonaiari buruz pentsatzen zuen guztia idatzita uzteko aukera ederra izan zitekeela. Eta bestea, bere bizitzako une garrantzitsuak, bere izatearen zertzeladak eta zenbait pentsaera kaleratuko baziren -naiz eta guztiz ez biluztu- ezin zuela aukera galdu urtez urte bere barnean egosten egon den hori besteei zabaltzeko. Artikuluak idatzita baino hobeto agian.

Beldur bat ere bazuen berarekin. Bizitzan horrelako aukerak ematen dituztenean, berehala azaltzen dela nia: *“hemen natxiok”*. Nahi gabe, oso erraz astintzen zaio intsentsu-ontzia norberaren buruari. Jakitun izanik, hori ere une batzuetan gerta daitekeela, hitz eman zuen harrokerietatik at, ahal zuen xumeena izaten ahaleginduko zela.



1. atala

MATXINBENTA



El caserío Otogoena, donde nació Iñaki

Iñaki Matxinbentan jaio zen, 1952ko urtarrilaren 26an, metro-erditik gorako elurra zegoela. Hiru egunetara, hankatxoak kotoietan bilduta zituela -hotz izugarria baitzegoen- eraman zuten Loizazko Martin martiriaren parrokia elizara bataiatzera. Aita, oinez, Beasaingo Udaletxera joan zen bere 7. semea inskribatzera. Nahiz eta Iñaki deitzen zela esan, Ignacio Maria izena idatzi zuten. Frankoren garaia ziren.

Matxinbentako Oto inguruko Otogoena baserrian jaio zen. Baserri hau 1691an eraiki zuen Astigarretako Juan de Lasak, Latse baserriko seme batek. Garai haietan Astigarretak "Villa Real" titulua lortu nahi zuen, eta horretarako herriko hainbat lursail saldu zituen, euren artean Oto aldeko ote-lurrak. Lur hauek Juan de Lasak erosi zituen. Lasa abizena, Gipuzkoa aldekoak batez ere, Astigarretako Latse baserritik omen dator, Aita Jose Inazio Lasa frantziskotar

historiagileak idatzi zuenez. Latse baserria errekatxo baten ondoan dago, eta Latsek hori adierazten omen du, errekatxoa. Beraz, Latsetarrak Lasatar bihurtu ziren.

Iñakiren aita, Josemari, 9 anai-arrebetan nagusiena, eta Otogoeneko maiorazkoa zen. Ama berriz, Josefa Nuin, nafarra, Basaburua Nagusiko Arrarats herrikoa. Aitak Ordiziako okindegi batean lanean ezagutu zuen. Biak ala biak, baserrian makina bat lan egindakoak ziren eta 8 seme-alaba aurrera atera zituzten. Baserri-etxea ederra bada ere, lana egiteko ez da hain eroso, inguru-neak oso malkartsuak baititu. Soroetan beti lurrari eutsi ezinda, idi pare on batekin ere bertan goldea, bostanka edo area maneiatzen ausartzea lana zen. Iñakiren garaian oraindik garia ereiten zuten, nahiz eta uza eskasa izan gehienetan, udaberriko ekaitz eta euriteek asko hondatzen baitzuten. Arta-sail mardulak ere ereiten ziren -artoa indabarekin batera- eta negurako arbi-sailak eta erremolatxa. Lurra lantzen askotan itulan ibili zen Iñaki idien aurrean.

Baserri hartan etxe-abereak ere ez ziren falta. Idi pare uztarrirako, sei edo zazpi behi, beste horrenbeste txahal, astoa lanerako, txerri pare, oiloak, untxiak... Oso gaztea zela zazpi ardi ere ezagutu zituen.



12 urte bete arte Otogoenan bizi eta auzoko eskolara joan zen, noizean behin piper egiten bazuen ere, beti etxean laguntzeko. 10 urterekin segan ere bazezkie, ganaduak jateko asko behar baitzen horrenbeste bururentzat.

Ez zuen amonarik ezagutu, bai ordea baserriko aitona, gizon benetan zuzena. Eskola kontuetan ia-ia autodidakta. Etxean liburu gutxi izan arren, aitona bazuen azalik gabeko zahar bat euskaraz, Itun Zaharreko liburu bat seguruenik, eta handik irakurtzen zien oso mantso, eta noizbehinka. Hori bai, arrosarioa egunero, faltarik gabe. *Zeruko Argia* aldizkaria ere iristen zen batzuetan, norbaitek ekarrita edo... Arantzazuko egutegi-takoa ere egon ohi zen. Amak irakurri eta kantatzen zizkien hango bertsoak, zortziko handian beti doinu berdina erabiliz. Iñaki jaio aurretik bazen irratia Otogoenan. Iñaki jaiotako urtean hondatu omen zen eta Philips berria erosi zuten. Orain, Iñakik berak dauka bere etxean, mutu, baina horman dotore jarria. Baserriko aitona, guraso eta anai-arreben arteko giro goxo hartan eman zituen Iñakik bere lehen hamabi urte garrantzitsuak. Oso txikitatik izan zuen natura eta animaliekin harreman aberatsa.

Aaa! Eta... Han ez zuen Olentzero ezagutu. Otogoenara Erregeak joaten ziren. Beti ekartzen zieten zerbait, Alpino izeneko kutxatxo bat koloretako sei arkatzekin, borragoma, arkatza, zorrozka... eta, aurreko astean Or-

diziako azokan egon baziren, agian, kutxatxo borobil polit bat mazapanezko sugearekin eta gozoki pinportekin. Hura ikustean... a ze poza!



El núcleo del barrio de Matxinenta

Matxinentako erdigunea mendiz inguratutako zulo bat da, non hiru errekek topo egiten duten Ibai-eder ibaia osatuz. Bertan, eliza, eskola, frontoia eta 9-10 etxebizitza aurkitzen ditugu, hauek hiru baserriak. Baina Matxinenta auzoa hori baino gehiago da. Izazpi eta Murumendi mendien aldera baserriak azaltzen zaizkigu nonahi. Azpeitia alde-ara ere, Ibai-eder jarraituz, badira beste hainbat baserri, baita Nuarbeko urtegiak itotako beste batzuk ere.

Auzo-burua zuloan badago ere, berez, zabala da Matxinenta auzoa. Erreka desberdinek jartzen diete muga alboetako udalerrien konkistei. Horrela, baserriak Azpeitiara, Beasainera eta Ezkio-Itsasora banatuak daude. Gaur egun hiru udalerrian banatzen badira ere, garai batean bosten artean banatu ziren. Ezkio eta Itsaso 1965ean elkartu ziren, ordura arte bi udalerriz ziren eta Beizamak ere bazuen bere partea bi ba-



serrirekin. Azpeitiakoak 34 etxebizitza edo baserri, Beasaingoak 31, Ezkiokoak 14, Itsasokoak 3 eta Beizamakoak 2; guztira 84 baserri edo etxebizitza. Bakarka kokatutako baserriak badaude ere, gehienetan binaka edo multzo txikitan, elkarren arrimuan, banatuta daude. Baserri batzuk behi eta txahal askorekin, eta beste batzuk artalde ederrekin. Artzaintza, abeltzaintza eta gehienak, guxti edo asko, laborantza zuten ogibide. Errota pare bat ere bazen: Itsaso-errota eta lxuelako errota; bigarren honek, urtegitxoia ustiatzen zuen hidroelektriko txiki bat ere bazuen.

Bere garaian hiru taberna zituen: Txanxona: gaur egun geratzen den bakarra jantoki finarekin, Erdikostatu: taberna eta denetarik saltzen zuen denda, eta Estankoa taberna: jantokia eta ostatua ere bai. Eliza, Loinazko Martin martiri frantziskotarrari eskainia, 1790ean eraikia. Barrutik batere zutaberik gabea, eta neoklasikoko erretaularen erdi erdian Martin Deuna gurutzatua, alde-banako saihetsetatik lantaz zeharkatua, atzealdean Japoniako irudi-pintura bat duela. Eliza honetan ikasi zituen Iñakik bere lehen kankak. Hemen egin zituen baita ere lehen jaunartzea, jaunartze handia eta konfirmazioa. Orduan, herri askok bezala, Matxinbentak ere bazituen bere bikarioa eta serora.

Elizari itsatsita, zimitario gaineen, eskola. Horrela, euria zenean, eskola azpian jolas egiten zuten. Iñakiren garaian eskola bete xamar zegoen, 45 bat neska-mutil, txiki eta handi, adin guz-

tietakoak (6tik 14ra bitartekoak). Bernardo Atxagaren “Obabakoak” irakurri zuenean, eskolaren deskribapenak Matxinbentakoa gogorarazi zion, xehetasun guztiekin. Eskola erdian estufa, bi-erentzako egurrezko mahaia, tintontzi eta guzti, arbel beltza eta txuri-urdinez idazten zuten klarionak (eroritako tinta xurgatzeko erabiltzen baitziren klarionak). Sua piztearen erritua eta beste guztia ere berdintsua omen zen.

Otogoena baserritik eskolara 3 km eta erdi daude errepedez, zerbait gutxiago noski eliza-bidetik. Egun guztirako jaisten ziren eskolara eta, Endrion, izebaren etxean, bazkaltzen zuten egunero, eskolatik kilometro erdira. Baserri ingurukoekin koadrilan, etxera bidean gehiago ikasi omen zuten eskolan bertan baino. Irakasle guztiak maistrak izan omen zituen, denak gazte-gazteak eta Hispania sakonekoak: Valladolid, Zamora, Salamanca eta inguru horietakoak. Orain, hainbeste urtetan bera ere irakaslea izanik, neska hauek asko sufritu zutela pentsatzen du. Karrera amaitu berriak nora bidaliko eta Matxinbentara! Helmugan Beasain ikustean, mapan begiratu, eta Renferen geltokia zeukala konturatzean, beharbada lasaituko ziren. Baina, Beasainen taxia hartu, eta Matxinbentara bidean jarritakoan, Mandubiko mendatean gora, baso-errepedean barrena sartuta, zer pentsatzen ote zuten 21 urteko “señorita” haiek?

Espainiako bandera balkoian jartzen zen bitartean, “Cara al sol” abestuz hasten zuten eskola eguna. Gazteleraz



Foto de escuela. Iñaki a sus 10 años



El interior de la Iglesia de Matxinbenta

tutik jakin gabe —sí eta no bakarrik zeki-
zkiten, baina ez zekiten noiz erabili bata
ala bestea— erdara hutsean bizi zuten
eskola garaia. Atsedean denboran ere
euskaraz hitz egitea debekatua zuten.
Gaurko leihotik begiratuta, zenbat eta
zenbat egoera barregarri gaztelera zela
eta! Baina orduan gauza serioa zen. Ka-
toiarekin hasi ziren irakurtzen eta idaz-
ten eta, ondoren, leku guztietan bezala,
entziklopedia famatu haiekin. Bazuten
eskola ondoan frontoi ireki bat ere, eta
hantxe jolasten zuten “putxera” muti-
lek eta neska batzuk, denak nahastuta.
Gaur egun, Matxin erremontisten izena
daraman frontoi estali eder bat dago,
2000. urtean inauguratua.

Iñakik 1962an ezagutu zuen telebista,
Astigarretan, alboko beste auzo batean.
Ostegun arratsaldetan jai izaten zute-
nez, telebista lehenengo aldiz ikustera
eramán zituzten sei kilometrotara da-
goen Astigarretara. Gogoan dauka nola
jolas-ordu garaian, hautsekin egindako
esnea eta gazta zati bat ematen zieten.
Estatu Batuetako presidentea zen Ken-
nedyk bidalitakoak omen ziren, Espai-
nían umeek gosea zutenez, laguntza
bezala. Gazta gustura jaten omen zuten,
baina hautsez eginiko esnea ezin zuten
irentsi, eskolara etxeko behi-esnea har-
tuta joan ostean.

Matxinbentan, baserritik bizi ez zi-
renek, otarregintza zuten lanbide eta
sostengu. Batez ere baserritarrentzako
tamaina desberdinetako otarrak egiten
zituzten, gaztainondo zumitzekin. Bazi-
ren hainbat putzu inguruan gaztainon-
do egurra uretan sartuta kontserbatze-
ko erabiltzen zituztenak.

Haien inguruan bazen koralez koral
igelen amaitu ezineko kantua. Matxin-
bentan eta Nuarben zeuden inguruko
otargilerik famatuena. Benetako arti-
sauak!

Matxinbentarrak osasun arazoak di-
tuztenean Azpeitira edo Beasainera
joaten dira. Gehien erabiltzen duten os-
pitalea berriz, Zumarragakoa da. Garai
batean bazen praktikante bat Astigarre-
tan bizi zena. Haurrak mundura ekart-
zeko unean laguntzeko, auzo bertako
Juana Lasa, Iñakiren izeba, ibiltzen zen
emagin lanetan.



Iñakik 12 urte zituela joan zen Arantzazura. Horiek horrela, oso gutxi gogoratzen ditu auzoko kontu sozial eta politikoak. Etxekoak bakarrik gogoratzen ditu; intuizioz jasotakoak gehiago dira hitzez jasotakoak baino. Politikaz, gerra zibilaz, han gertatutakoaz... gauza horietaz isiltasuna zen nagusi. Artean ere beldurra zutela nabaria zen. Izan ere, pasatakoak pasata, ahaztea nahiago gogoratzea baino. Eta... hain gazteak izanik ez ziren galdetzeraz ausartzen. Familia askotan bezalaxe, Iñakirenean ere bazen amaren aldetik gerran hildako bat, baita zaurituak ere, ihes egindakoak, frontera eramandakoak eta abar. Oso gutxi hitz egiten zen... edo, batere ez.

Bazen “Goikoerrota” deitzen zioten autobus zahar bat, eta bertan joaten ziren auzotarrak, batzuk Azpeitiko azokara astelehenetan, eta beste batzuk asteazkenetan Ordiziakora. Iñakiren ama edo aita, hamabostean behin, Ordiziara joaten ziren.

Oso gogoan ditu Iñakik Matxinbentako Santa Ageda festak. Ez ziren Santa Ageda ospatzeko baina, otsailaren

Sean, egun berdinean, Loinazko Martin Donea Japonian martiritatu zutelako baizik. Gogoan ditu meza nagusia, txistulariak, bertsolariak (Basarri eta Uztapide), itsulapiko-puskatzea, erroskila saltzailea, pilota partidak, aizkolariak, trikitixa eta abar luze bat. Hori ez zen egunero gertatzen!

Matxinbenta auzoak hainbat pertsona ezagun eta sonatu eman ditu. Hasteko, Iñaki bera jaio zen Otogoena baserritik irtendako Lasa ostalari eta sukaldarien hiru belaunaldi, Gipuzkoa, Bizkaia eta beste lurralde batzuetan sakabanatuak. “Matxin” izenarekin punta-puntan ibilitako erremontista, osaba-iloben zerrenda luzea da ere. Baita Zuaneta baserritik joandako Arantzazuko Lasa frantziskotarrak ere. Eurretako bat, Aita Jose Inazio, igandero Arantzazutik Urbiara igotzen zen, hango artzainei eta bertaratutakoei meza ematera. Horretaz gain, historiagilea ere bazen, hainbat libururen egilea. Beste asko aipa daitezke, fraide, lekai-me, arraunlari, korrikalari eta abar luze bat; eta, Matxinbentar guztiak, gizon eta emakume jator-jatorrak.



2. atala

ARANTZAZU - SEMINARIOA



El Santuario de Arantzazu



El seminario antiguo de Arantzazu (Arch.Arantzazu)

1964ko abuztuaren amaiera aldera sartu zen Iñaki Arantzazuko seminarioan, 12 urterekin. Arantzazuko fraide bat Matxinbentara bokazioen bila joan bazen ere, Iñakik nahiko garbi zeukan Arantzazura joan nahi zuela. Batetik, 10 urte zaharragoa zen anaia teologia ikasten hasi berria zen Arantzazun. Bestetik, auzoko lagunik handienak ere bertara joatea erabaki zuen. Gainera, ez zen oso ongi konpontzen Gaztela eta Extrema-

durako maistrekin, ezta ere idien aurrean itulan ibiltzen, baserriko lanetan. Ikusi zuen, fraideak erakutsita, Arantzazun jolastoki ederrak zituztela eta han dena ederragoa izango zela.

Aldaketa handia sumatu zuen. Matxinbenta bezalako auzo txiki batetik irten, baserriko giro goxo hura utzi, eta beste familia handi eta hotz batean sartzea, belarretatik zementura pasatzea bezala iruditu zitzaion. Hiru kurtsotako 140 gaztetxo inguru zeuden 1964an Arantzazuko seminarioan. Lehenengo hiruhilekoa ez zen batere erraza izan. Iñaki auzoko bi lagunekin joan zen, baina besteen lagun egin, eta egunerokotasun gogor hartara ohitu arte luze egin zitzaion. Komentuan zeukan anaiarekin hilean behin egoteko baimena bazueenez, hark goxatu eta animatzen zuen, noski. Baina, teologiako bigarren urtea amaitu zuenean, anaiak, frantziskotarrak utzi eta etxerako bidea hartu zuen. Ikasketak ere denak desberdinak ziren, batez ere latina. Kosta zitzaion ablatibo, genitibo, datibo, akusatibo eta horrelako hitz eta kontzeptuekin bat egitea.

Garai haietan Gabonetako eta Aste Santutako oporraldiak seminarioan bertan igarotzen zituzten. Gabonetan asko oroitzen zen etxean bizitako Gabon giroarekin, eta gogorra egiten zitzaion, nahiz eta klaserik ez eduki, eta egunak jolas antolatuetan eta zenbait emanaldi



kulturaletan parte hartuz igaro, horretarako zuten antzokian: euskal dantzetan, antzerkigintzan, zine emanaldietan, eta abar (Titanic filma zaharra Arantzazun ikusi omen zuen zuri-beltzean). Lehen Gabonak iristerako, lagun berriak bazituen, eta etxetik bidalitako turroi pixka bat janez disimulatu omen zuen etxe-koen falta.

Aste Santutan ere seminarioan geratzen ziren eta, Arantzazuko elizkizunak ikusgarriak zirela eta, entsegu nahikotxo izaten zituzten, batez ere korukoak zirenak. Udaran 25 egun izaten zituzten familiarekin igarotzeko. Hirugarren urtean, Gabonetan ere astebeteko oporraldia izan zuten etxera joateko. Eguneroko diziiplina hura dezente ongi bideratu omen zuen, eta Arantzazuko hotza ere bai. Goizeko zazpitan Urbia azpiko Iturri-gorritik zetorren ur hotz harekin aurpegia garbitzea ez zen laztan oso goxoa, baina bai ongi esnarazten zuena. Arantzazun ezagutu zuen euskararen aberastasuna: euskalkiak eta bakoitzaren berezitasunak. Gernikakoa bizkaiera bat da eta Ondarroakoa beste bat. Azpeitikoa eta Beasaingoa ere desberdinak diren bezala. Lagunei eta euskaldun jatorrei esker euskara aberastu zuen. Izan ere, seminarioan, “ofizialki”, gaztelania hutsa erabiltzen zuten. Euskara ikasgai modura jorratzen zuten, batez ere ezer ez zekitenek ikasteko, eta euskaldun zaharrak zirenek aditza, deklinabidea eta abar hobetzeko.

Froga bat egin ondoren, Arantzazuko koruan triple modura onartu zuten Iñaki.

Kantatzea oso gustuko zuen, eta horretan gozatu egiten zuen. Hirugarren urtean, Joseba Etxeberría fraideari esker, euskal abesti zahar asko ikasi zituzten “Boga-boga” izeneko liburutxo batetik. (Donostiako seminarioan egindako liburuxka)



El nuevo seminario de Aránzazu (Arch. Aránzazu)



Iñaki en uno de los equipos de fútbol del seminario

Kiroletan pilota eta futbola ziren nagusi. Pilotan esku ezkerrekin txarra zela eta, gehiago aritu zen futboleant. Lagunek, oraindik ere, futbolari ona zela diote. Arantzazuko ingurumenerekin ere harreman handia zuten eta,



nahi gabe, naturarekin topo egiten zuten. Iturri-gorriko futbol zelaia pagadiz inguratuak zeuden, eta futbol-partida jokatzeari tokatu arte han ibiltzen ziren baso-ertzean jolasean eta lanean. Lagun koadrila batzuk baratzatxoak zituzten, txabola eta guzti. Iñakik ere bazuen horrelako bat bere lagunekin. Arantzazuko azken urteetan, udara garaian, ia igande arratsalde guztietan igotzen zen Urbia, elizan bezperak abestu ondoren. Laban txiki bat omen zuen, eta harekin egurra lantzea gustatzen zitzaion. Bere tailatxoak ikusita, fraide zahar batek egurra tailatzeko trintxak eta gubia batzuk oparitu zizkion. Geroztik, erliebeko hainbat taila egin zituen.



El ábside, retablo pintado y tallado por Lucio Muñoz. (Arch. Aránzazu)



Vidrieras de Javier Álvarez de Eulate (Arch. Aránzazu)

Arantzazu lehenagotik ezagutzen bazuen ere, dorre luze hura, harri puntadun haiek eta guztia hain handia, mi-resgarria zen Iñakirentzat. Gainera, bizi ziren kolegio zahar haren ondoan oraindik eta ederragoa iruditzen zitzaion. Oraindik falta ziren pietatea eta apostoluak. Kolegiotik komentura edo elizara pasatzeko tunel bat zegoen errepide azpian, eta handik ibiltzen ziren, ezkutu eta busti gabe. Seminaristek korutik ikusten zuten basilika. Lehenengo korutik kantoreak zirenek eta bigarren korutik, goiko korutik, abeslariak ez zirenek. Guztiz aldatzen da basilikaren irudia. Oso gutxitan egoten ziren basilikako aulkietan. Akolitoak zirenak – eta Iñaki bazen – goizeko zazpian joaten ziren basilikako sakristiara tuneletik, basilika alboetako aldaretxoetan meza eman behar zuten fraide-apaizei laguntzera. Zenbat ordu egiten zituzten aldareko absideari begira! Lucio Muñozen margo-taila hartan denetarik ikusten zuten: zintzarria, Errodrigotxo artzaina, ardiak, arrantzaleak, elorri-zuhaixka, itsasoa... Denbora-pasa ederra! Pentsa Iñaki gaz-



tetxoa zela, mezak latinez ematen zirela oraindik. 1965ean hasi ziren jendeari begira eta latina ez zen beste hizkuntzetan meza ematen.

OITEIZAREN HARRIAK. Arantzazutik irten eta Oñatira bidean, lehenengo bihurgunean baztertuta harri handi batzuk ezagutu zituen Iñakik. Haiek apostoluak egiteko zirela esaten omen zuten. Hiru-lau urte pasa ondoren, seminario berriaren kontra eta aparkalekuan jarri zituzten hamalau harriak, eta egurrez egindako txabola batean gorde. Leku hori bera izango zen harriak landuko zituen tailerra. Oteizak bazuen ikerketarako bere tailerra. Seminaristak kolegio zaharra utzi eta berrira pasatu ziren 1968an, eta urte batzuetan libre geratu zen kolegio zaharra. Seminarista guztiek jatorduak egiten zituzten “refectorioa”, jangela, hartu zuen Oteizak tailer bezala bere esperimentazioetarako. Berehala bete zituen horma, zutabe, mahai-gain eta leiho-zuloak aurkitzen zituen elementu esanguratsuekin.

OITEIZAREN APOSTOLUAK. Iñakik ez du gogoratzen zenbat denbora iraun zuten harri haiek seminario berriaren aurrean, tirikitauki mailuaren hotsa entzuten zen bitartean, Gandiaga poetak zioen bezala. Txabolako ohol-tartee-tatik ikusten zituzten langileak harriak lantzen. Apostolu bati lepoa moztu eta burua aldatu zioten, Oteizak berak agindutako aldaketa bat izango zen! Oteiza askotan ikusten zuten, baina berarekin egotea oso zaila zen. Behin, lagun batzuekin haren tailerrera joan zen, beti

bezala, arduradunen baimenarekin. Iñakik tailarako zuen zaletasunaz hitz egin zioten lagunek Jorgeri, eta hau galderak egiten hasi omen zitzaion: ea nor zen, nongoa, abizenak eta abar. Lasa abizena zuela entzutean, haserretu egin zitzaion Oteiza. “Siendo un Lasa, ¿cómo vienes a estas alturas cuando ya estamos terminando la obra? Yo también soy Lasa, mi tercer apellido es Lasa. Tu tenías que estar aquí”.

Chillidak basilikako sarrera nagusiko ateak diseinatu zituen. Miresmenez begiratzen zituzten halako burdinezko ateak. Chillida bera ez zuen sekula ikusi Arantzazun. Nestor Basterretxearen kriptako margoak ez zituen bere garaian ezagutu, geroago margotu baitzituen; 1984an margotu zuen kristo gorria. Marraztuta eta margotuta zituen hainbat lan berratu egin zizkioten 1955ean. Basilikako beirateak egin zituen Xabier Alvarez de Eulate frantziskotarra Erriberrin ezagutu zuen gerora, bi urtez komentu berean bizi izan ziren. Xabier Egaña margolariak teologia ikasketak amaitu zituenean seminariora bidali zuten, eta han ezagutu zuen Iñakik, bere brotxa eta pintura akrilikoekin hormetan etorri handiko irudiak margotzen. Pinturarekiko pasio izugarria zuen Egaña. Arantzazuko kamerinoko pinturaz gain, hementxe bertan, Araban, Andetxako eliza guztia barrutik margotu zuen, baita portikoa ere.

EUSKARAREN PATRIARKAK. Iñakik, bere garaian, bi errealitate linguistikoa ezagutu zituen: bata, gaztelera nagusi



zena, seminarioko harremanetarako, talde harremanetarako... nahiz eta euskaldun zaharrak zirenei pertsonalki euskaraz egin. Eta bestea, euskara landu eta euskaraz ekoizten zuten fraideena. Arantzazun ezagutu zituen euskararekin lotura handia zutenak, orduan fraideak zirenak. Aita Villasante, euskara batuaren ikur eta Euskaltzainburu izan zena; Bitoriano Gandiaga poeta handia, irakasle izan zuena; Joxe Azurmendi filosofoa, bere lan sakona euskaraz argitaratu duena; “Jakín” aldizkariaren testuinguruan oso garrantzitsuak izan ziren Joseba Intxausti, Joan Mari Torrealdai, Paulo Agirrebaltzategi... ; Euskal Herrian oso ezagunak izandako Pello Zabala edo Iñaki Beristain, eta abar luze bat.

MUSIKA: Gauetan oheratzerakoan eta goizetan esnatzerakoan musika jartzen zieten. Beti musika klasikoa. Askotan jartzen omen zieten Ketèlbey musikalarri ingelesaren “Pertsiko merkatu batean” obra, edo Jesus Guridiren “Hamar euskal doinuak”. Gaztetatik Arantzazuko koruan tiple moduan kantatzea ohoretzat du Iñakik. Koruko lehen diziplina hark asko balio izan dio geroago taldeetan abesterako orduan.

Alejandro Zabala pianista handia ikas-kide izan zuen, eta pianoa jotzeko haren trebetasunak liluratu egiten zuen Iñaki. Oñatiko Felix Ibarrondo ere ezagutu zuen Arantzazun, nahiz eta harreman zuzenik ez izan. Hura teologia ikasten ari zela, askotan ikusi zuen organoa edo pianoa jotzen. Gaur egun, Euro-

pa guztian ezaguna da abangoardiako musika-konposatzaile bezala. Pello Zabala, Arantzazutik apenas irten bazen ere, musikari ona zen eta organista hobe. Zer ez zen Pello? Euskara fineko idazlea, eguraldi gizona, hizlari goxoa, irakurle amorratua, frantziskotar aurretakoa; Iñakik gaztetatik lagun handia izan zuen. Iñakik berak ere Arantzazun piztutako musikarako zaletasun handia du, nahiz eta bere buruari “musikari pobrea” deitu. Gitarra zarrastatzen, txistua txistuz betetzen eta bateriarekin zarata ateratzen fenomeno bat izan omen da.

Iñakirekin Arantzazuko seminarioan egon ziren pertsona entzutetsu asko aipa daitezke, baina, baliteke, eurak ere han egon zirela aipatzea nahi ez izatea. Horregatik, ez ditugu aipatuko. Ziru-jauak, abokatuak, eskultoreak, kazetariak, irratiko esatariak, kirolariak... eta frantziskotarrak, noski. Denak ditu gogoan.

Arantzazuko seminarioa barnetegi bat zen, eta Iñakiren garaian, oso itxia. Etxera udaran bakarrik joaten ziren, eta 25 egunerako soilik. Barneko bizitza nahiko gogorra zen, eta arduratsu jokatu beharra zegoen. Baina, dudarik gabe, “diziplina” horrek berak nortasuna isilpean modelatzen du, batez ere nerabezaroan. Arantzazun zazpi urtetan asko ikusi, ikasi, poztu, nahigabetu, eraman, sortu, lagunak egin... denetarik egin zuen, eta ez da han egon izanaz sekula damutu.



3. atala

ERRIBERRI – OLITE



El convento de los Franciscanos de Olite

Batxilergoa amaitu ondoren, Arantzazutik Erriberriko komentura eraman zituzten filosofia ikasketak egitera. Euren kurtsoa izan zen lehena nobiziagotik pasatu gabe filosofia ikasketak egitera joaten. Alegia, Iñaki frantziskotar boto sinpleak eta abitua jantzi aurretik joan zen Erriberriko komentura. Laikoak babilira bezala, baina erlijiosoen bizitza eginenez pasa zituzten bi urteak.

Hori aldaketa izan bazen ere, ia anekdotikoa dirudi benetako aldaketari begiratuta. Gehientsuenok ezagutzen dugu Arantzazu eta bere inguruneak nolakoak diren: mendiak, mendixkak, harkaitza eta harria non nahi, bizinahiak harri artetik zutitutako zuhaitz eta zuhaixkak... Leku malkartsua eta hertsia. Eguratsari erreparatuz, berriz, euritsua, lainotua -sarritan behe-lainoduna-, eta, udara garaia kenduta, argiz nahiko iluna. Zeru-muga gertu ikusten zuten bertan. Ipa-

rraldera begiratuta ia ez zuten Aloña eta Urbia tarteak ikusten. Hegoaldera begiratuta, Elgea mendia, Arabako mendiak bezala ezagutua, ostarte gehiagorekin, baina hantxe bertan. Zeru-tarte apala.



La llanura y la luminosidad de Olite y sus alrededores.



El Palacio Real de Olite, castillo de Olite (XIII y XIV)

Erriberri eta inguruneak ezagutzen dituzuenok berehala konturatuko zarete han begiek ikusten dutenak ez duela



zerikusirik Arantzazurekin. Arantzazun zazpi urte egin ondoren, bizilekua Erriberriera aldatzean, Iñakiri mundu fisiko berri eta ezezaguna gertatu zitzaion. Inguruan apenas dago mendirik, ingurune guztia laua da, ia mugarik gabeko zerutzarra, nonahitik argi bizia eta kolore goxoak. Zirrara berezia sentitu zuen, norbera ere hazi eta zabalduko balitz bezala. Akaso, libreago sentituko balitz bezala. Garrantzirik gabekoa badirudi ere, leku-aldatze horrek asko suposatu zuen Iñakirentzat. Beharbada adinak ere lagunduta, 18 urte, bere pentsamoldeak eta izaerak ere irekiera bat nozitu zuten Erriberriko bi urte haietan.

Ikasketa aldaketa. Arantzazun ikasgai asko zituzten, baita irakasleak ere, eta gaiak operatiboagoak ziren: zientziak, matematika, literatura, historia, eta abar. Erriberriko ikasgaiak irekiagoak ziren, norberaren pentsamenduari eta munduaren ezagutza filosofikoari lotuak, eta ezagutza mota honek berak buruak eta pentsamoldeak ireki zizkieten. Erriberri bizi izandako bi urte haiek biziki gogoan ditu oraindik ere. Komentu batean bazeuden ere, eta ugariak izan betekizunak, askatasun sentsazioarekin bizi zituen urte haiek. Hala ere, ostegunetan bizpahiru lagun dotrina erakustera joaten ziren herriko eskolara, eta gazteen meza batzuetan ere parte hartu zuten; komentutik kale-ira irteteko gogoia ere bazuten.

Musika kontuekin jarraitu zuen. Hamabi laguneko "otxote" antzeko bat zuten eta han abesten zuen tenore be-

zala. Zortziko batzuk ere abesten omen zituen Alejandro Zabalak pianoarekin lagunduta. Tenore ahots oso ona zuen, belarria ordea, ez hain fina. Arantzazun zuten bateria han utzi zuen, eta Erriberri bestea bat egin zuen eskuz. Kaxa edo atabal bat aurkitu zuen komentuan —bateria batetako piezarik garrantzitsuenak— eta beste bonbo, tinbal, pedal eta beharrezko guztiak berak egin zituen, Itxaso izeneko fraide legoaren lagun-



La iglesia Santa María la Real de Olite (s. XIII)

tzaz. Bateria harekin, gabon batzuetan, herriko gazteei lagundu zien Erriberriko zineman, eta herriko festetan, trakto-



Iñaki en la batería, que construyó él mismo con los jóvenes de Olite en el teatro del pueblo.



rearen erremolke gainean diana jotzen ibili ziren herrian zehar. Gazteen meza pare batean ere erabili omen zuten bateria preziatu hura.

Ordurako Andonegi, maisu-ardura-duna, konturatuta zegoen Iñakiri kalea gehiago gustatzen zitzaiola komentua baino. Igandeetan, 12etako mezetan, begirale lanak ere egiten zituen, beste kide batzuekin txandakatuz: irakurketak, kantuak abestu eta abar. Askotan tokatu zitzaion Alvarez de Eulate fraide-apaiz eta artista handiari laguntza ematea. Pintatzeko erabiltzen zuen gelara ere joaten zitzaion batzuetan zertan ari zen ikustera. Hark bazekien Iñakik pipan erretzen zuela, eta sei edo zazpi pipa oparitu zizkion, berak birrikak izorratuta zituela eta.

Udaran, uztaillean eta abuztuan, talde desberdinetan Bilbora joaten ziren jende langilearen bizimodua ezagutu nahian edo... hilabetez lanera. Ez zen etxerako oporrik izaten. Pisu batean elkarbizitza egiteaz gain, -pentsa lehen aldia zela soldata jasotzen zutela- gastu guztiak kudeatu behar zituzten: alokairua, erosketak... astelehenetik ostiralera bakoitzak bere lanari ekiten zion. Orduan orain baino errazago zen lana topatzea. Batzuk peoi obretan, besteak gasolindegian, gaixoei laguntzen eta antzeko lanetan. Iñaki lehen urtean, uztaillean, Bilboko Begoña inguruetakoa etxebizitza berrien eraikuntzan peoi lanetan aritu zen. Gogoan du oraindik zenbat ordaintzen zieten: 33 pezeta or-

duko. Eguerdian ordubeteko etenaldia zuten bazkaltzeko eta gertuko taberna batean bazkaltzen zuten beste langileekin batera. Benetan esperientzia polita. Udara ondoren, taldean kontatzen eta aztertzen ziren izandako esperientziak.

Arantzazuko azken urtean bezala, bakoitzak bere gela zuen, eta ordu dezente pasatzen zituzten bertan ikasten eta irakurtzen. Baldosazko lurraren gainean ohe bat arto-zorroz egindako koltxoiekin, arroparentzako armairutxo bat, liburuentzako apalategi txikia eta ikasteko mahaitxoa aulki batekin; horixe zen guztia. Gelako leihotik baratzea eta Erriberriko gaztelua ikusten zituen, eta maiz egoten omen zen handik begira.

Arratsaldetan ordubeteko atsedenaaldia izaten zuten, eta batzuetan Beireko errepidetik joaten ziren paseoa bi, hiru edo lau lagun. Udara garaian beroa egiten zuen errepide estu hartan, baina neguan... han ezagutu zuten nafarrek ziertzo deitzen duten ipar-haize hotza. Erriberri ongi bereizten ziren udara eta negua. Udaran leku beroa zen eta neguan nahiko hotza, batez ere komentu handi hartan. Goizeko sei eta erdietan jaiki, eta elizako korura joaten ziren beste fraide guztiarekin laudesak errezatzera. Praka bakeroak eta jertseak ez ziren nahikoa hotzari aurre egiteko, eta berehala aurkitu zituzten komentuko zirrikituetan fraideek neguan erabiltzen zituzten kapa handi batzuk. Hauek bizkarretik hartu, gorputza bildu eta horrela bero-



tzen ziren. Geletan ikasten egoteko ere beharrezkoa zitzaien. Gauzak horrela, norbaitek “Los capados” ezizena jarri zien.

Erriberri mahastiz inguratuta dago eta bertako biztanle gehienak mahastietara edo upategietara dedikatzen dira. Mahastiak urtean zehar askotan landu behar dira: inausi, lurra harrotu, gehiegizko kimuak bakandu, behar bezain bestetan sulfatatu eta abar. Iñaki eta konpainia ez ziren horrelako lanetan sartzen noski; jakin ere ez zekiten zer egin behar zen, mahatsa biltzeaz, ordea, bazekiten zerbait. Gogoratzen du fraideen mesedegileen mahastietara mahatsa biltzera joaten zirela. Herriko medikuarenera, adibidez. Uste du fraideek ere bazutela mahastiren bat. Lan neketsua da, eta arratsalde batetako jardunak ohituta ez dagoenari bizkarreko min ederra utz diezaioke.

Beste horrenbeste gertatzen zen azekien garbiketarekin. Urtean behin azekiak, ubideak, garbitu egin behar dira soroak eta baratzeak ureztatzeko ur arazorik sor ez dadin. Iñaki behin bakarrik jardun omen zen lan horretan, eta hankak busti arren, arratsalde ederra pasa zuen lagunartean.

Norberaren abildadeen inguruan bada esaera zahar bat gaztelaniaz. Iñakiren ustetan egia borobila dena: “En el convento y en las comunidades no demuestras tus habilidades”. Arantzazun 12 urterekin ilea moztzen hasi zen, eta Erriberri ofizioarekin jarraitu

zuen. Fraiderik dotoreenak ere ilea Iñakik mozte nahi izaten zuen. Horretaz aparte, leihoak, pianoak, musika-aparatuak... denetarik konpontzen ahalgintzen zen. Meteorologo lanak ere egin zituen urtebetez, egunero goizeko zortzietan aurreko eguneko datu guztiak bilduz, eta hilean behin Nafarroako Meteorologia Zerbitzura bidaliz. Jar-duera horiek beste lan batzuetatik ere libratzen zuten.

Erriberriko bi urteetan landutako zenbait ikasgai gogoratzen ditu, baina ez denak: kosmologia, teodizea, filosofia-ren historia, etika, logika, epistemologia eta gehiago ere ba ziren, baina pasatako urteek memoriatik borraratu dizkiote. Batzuetan irakasleek emandako apunteekin ikasten zuten, irakurtzeko testu gehigarriak barne, baina gehienetan norberak hartutako apunteak erabiltzen zituzten. Hori zen, hain zuzen, zuten arazoetako bat: ez zeuden prestatuta apunteak hartzeko, eta hasieran asko kosta zitzaien martxan jartzea. Zenbait klaseetan debatetxoak ere sortzen ziren, eta hori zen Iñakiri gehien gustatzen zitzaiona. Betidanik irakurzaletasun ahula izan omen du, eta filosofiako bi urteetan ere liburu gutxi irakurri zuela aitortzen du. Beste gauzatxo bat ere aitortu digu: ikasgai astun batzuetan txiste grafikoak egiten zituen. Komentuko Markos lagunak, koadernatzailea zena, oraindik gordetzen duen liburuxka batean bildu omen zizkion guztiak.

Behin aitortzen hasita, beste hau ere konfesatu du. Erriberri zegoela etxe-



ra egin zuen bidaia batean, Iruñean erizaintza ikasten ari zen Arrasateko neska bat ezagutu zuen autobusean, eta urte eta erdiz idatzizko harremana izan zuten, lagun onak bezala. Andonegi maisuak bazuen harreman horren berri, eta eskutitza komentura iristen zenean berak ematen zion eskura, besteei ikus ez zezaten, esanaz: “Tienes una carta de tu amiga”. Kartaren bat irekita ere eman omen zion, irakurri zuen seinale. Urteak geroago neska hark aurkeztu zion bere

emaztea izango zen Edurne, koadrilakoak baitziren. Oraindik ere harremana du neska harekin.

Erriberriko bi urte haietan ikasi... ez daki zenbat ikasi zuen, baina bere bizitzako urterik oparoenak izan omen ziren nortasunaren eraikuntzan. Eta pentsamendu garbirik gabe amaitu bazuen ere, ondorengo urteetan ongi aprobe-txatuko zuen pentsatzeari ateak irekitzeko. Erriberritik oroitzapen ona geratu zaio betirako.


4. atala

BILBO - ALGORTA - SAN NIKOLAS IKASTOLA



Ría de Bilbao con el puente y el Ayuntamiento.

Erriberriin filosofiako bi urteak amaituta, nobiziagora joatea zen ohikoena. Baina bost fraidegaien talde bat sortu zen, frantziskotarren promesa edo boto txikiak egin eta abitua hartzeko zalantzak zituztenak. Horretarako euren maisua zen Andonegiren laguntza be-



La ikastola San Nikolas de Algorta

harrezkoa izan zen. Frantziskotarrek euren ireki zieten Bilborako bidea. Bilboko lralako komentuaren barnean apartamentu antzeko bat zuten eta han instalatu zituzten bostak eta nobiziagotik pasatako beste bi, zazpi guztira. Lekuari “Republica independiente” izena jarri zioten bertaratuek. Ikasteko gela bat zuten baita bakoitzak lo egiteko gela



ere. Jatorduak komentuan egiten zituzten fraideekin batera. Komentuko beste zeregin guztietara ere gonbidatuak zeuden, noski. Helburua hiri handi batean norberaren saiakeraz bidea topatzea zen. Nobiziagora joan aurretik urtebeteko froga bat bezala eskaini zitzairen. Eta hori egin zuten, bakoitzak bere bidea. Gehienak ikasten jarraitu zuten eta Iñaki “Artea eta dekorazioa” ikasketak egiten hasi zen, arte mundua betidanik gustuko baitzuen. Aste-bukaeretan, gehienak euren etxeetara joaten ziren. Bost fraidegai horietatik bakarra joan zen nobiziagoa egitera Agilerara (Burgos).

Arantzazutik Erriberrirako bideak aldaketa handia suposatu bazuen, Erriberritik Bilborako jauzia ez zen txikia goa izan. 3.000 biztanle zituen Erriberri bezalako herri txiki batetik 300.000tik gorako hiri handi batera lekualdatzea



La ciudad de Bilbao con 348.901 habitantes en 2023

begiak ongi zabaltzeko modukoa izan zen. Gainera, komentu batean zeuden, baina, atzeko ate txikiko giltza zuten

eta inoren baimenik gabe egiten zituzten sartu-irtenak. Oso zintzoak ziren eta, egia esan, formalidade handiarekin dastatu zuten emandako askatasun pagotxa.



El convento Franciscano de Irala en Bilbao

Frantziskotarrei eskertzekoa da oparitutako urte hura eta, bereziki, orduan Iralako Guardianoa zen Iñaki Etxebesteri.

Hurrengo urtean, Bilbon bertan bizi zen anaiaren etxera aldatu zen Iñaki. Goizez bakarrik egiteko lan bat ere topatu zuen brotxa lodiko margolarien tailer batean, eta hasitako ikasketekin jarraitu zuen arratsaldeko seietaatik hamarretara. Urte hartan bertan, Algortako San Nikolas ikastolan marrazkigintza eta plastika emateko norbait behar zuten, eta bertan klase batzuk emateko prest ote zegoen galdetu zioten. Esperientzia polita izango zelakoan baiezkoka eman zien. Gainera, Edurne, ezagutzen zuen neska aramaioarra, bertan zegoen andereño. Klaseak arratsaldez emateko kome-nientzia adostu zuten, eta han hasi zen eguneroko bi orduz umeekin lanean. Erri-



berriko eskolan dotrina erakusten ibilia zen, astean ordubete emanez, baina ez zuen beste esperientziarik umeeekin eskola mailan. Hurrengo urtean, goiz eta arratsaldean lana egiteko aukera eskaini zioten jardunaldi osoz. Plastikaz aparte musika ere ematen zuen. Arte eta deko-razioko ikasketak amaitu zituen, baina irakaskuntza frogatu zuenez, eta ikas-
tolako giroa atsegina egin zitzaionez, irakasle ikasketak egitea pentsatu zuen, ondo zetorkion lanbidea zela sinetsita. Ez da inoiz damutu hartutako erabaki-
kiaz.



Ikastola San Nikolas de Algorta



Un momento del enlace de Edurne e Iñaki en Otegoena

Egon den leku guztietan saltsa asko-
tan sartuta ibili denez, San Nikolas ikas-

tolan ere ez zen atzera geratzen den ho-
rietakoa izan. Hainbat jardueratan parte
hartzen zuen, bere ideiak garatuz. Ba-
tzuetan, bazterrak ere nahastu zituen.
Oraindik ere gogoratzen ditu berak
bultzatutako ekintza batzuk: Ikus-entzu-
nezkoen erabilera sustatzea irakasleria
animatuz, zuzendaritzari beharrezko
tresnen erosketa aholkatzea, hauek so-
lairu desberdinetara eramateko bidea
(gurditxo bat) diseinatzea eta abar. Nes-
ka-ikasleak futboleko jolastera ere ani-
matu zituen. Inauterietan bera izaten
omen zen lehena moztarotzen. 1977an,
Franco hil eta bi urtetara, Espainiako
Gorteek ikurrina legeztatu zutenean,
Iñakik jarri omen zuen lehenengo aldiz
San Nikolas ikastolan, sarrerako marke-
sina gainera leihotik irten, eta bertan
zeudenei hitz batzuk esanez.

1977an ezkondu zen San Nikolasen
lankide zuen Edurne Arrizabalaga ande-
reñoarekin, Matxinbentako Otegoena
baserriko intxaurrondo baten azpian.
Hurrengo egunean Donostiako Gotzai-
nak ba omen zekien non eta nolatan
izan zen ezkontza, nahiz eta elizatik ez-
kondu. Sopelako Larrabazterra auzora
joan ziren bizitzera. 1978an jaio zen
Eriete, lehen alaba.

Noizbehinka joaten ziren Bilbora; egia
esan, oso gutxitan. Algortan eta Sope-
lan denetarik zeukaten eta, batez ere,
oso giro jatorra, eta euren ingurunean
gehienbat euskaldunak.

Bizikletarako txiki-txikitatik izan zuen
zaletasuna Algortan zegoela berpiztu
omen zitzaion. Larunbat goiz gehiene-



tan bizikleta hartu eta Bizkaiko bazterrak ezagutzera irteten zen. Gehienetan kostaldetik barnealdera jotzen zuen: Mungia aldea, Lea-Artibai eta Busturia inguruak, Larrabetzu eta Durangaldea eta abar. Ezker aldera, Barakaldo, Sestao eta inguru horietara pare bat aldiz bakarrik joan zen. Bizkaia gehiena bizikletaz ezagutu zuen.

Algortako San Nikolas ikastolan ze-goela hasi zen Olentzero pertsonaia ezagutzen. Aurrez entzuna bazuen ere, haurrak, irudigintza, margoak eta eskutitzak medio, apurka-apurka hasi zen Olentzero ezagutzen. Matxinbentan, Arantzazuko seminarioan eta Erriberrin ez zuen bere berririk izan, aldizkari baten bidez ez bazen. Hirurogeiko hamarkadan hasitako Olentzeroren inguruko mugimendu hura azkar zabaldu zen herri guztietara, batez ere ikastolen munduan. Iñakik dioenez, Olentzero pertsonaia ez zen bat-batean asmatu, batzuk dioten bezala. Antzinako gure Olentzero hor egon da beti neguko solstizio-ospakizun modura. Hasieran Gabon enborra bezala, gero panpina batean pertsonifikatua eta azkenik, hezur-haragizko Olentzero. Zenbat irudi, collage eta paperezko panpina egiten zituzten Gabon

buelta horretan. Orduantxe hasi zen Iñaki Olentzeroren munduan sartzen.

Nahiz eta jatorriz Gipuzkoakoa izan, bizkaiera ez zitzaion hain arrotza egiten Iñakiri. Arantzazuko seminarioan bizkaitarrak ere asko ziren eta ohituta zegoen haiekin bizkaieraz egiten, gutxienez haiei bizkaieraz entzuten. Garai haietan ez zegoen oraindik euskara batua bate-re ezarrita, eta bakoitzak bere etxekoa erabiltzen zuen, lagunartean behintzat. Hala ere, onartzen du Sopelako euskarekin zailtasunak izaten zituela batzuetan, batez ere azkar mintzatzen zirenekin.

Algortako San Nikolas ikastolan sei urtez aritu zen lanean, eta lau urtez Sopelako Larrabazterran bizitzen. Gaur egun, han igarotako urteak gogoratzean, beti sentsazio onak ditu. Beharbada gaztea izateak bere onurak izango ditu, eta bizitako gertakizunen oihartzunak ere zirikusi handia izango du: bere lehen lana eta ikastola, ezkontza, lehen alabaren jaiotza, eta abar. Bizkaitar jator haiekin izandako harreman irekiak eta goxoak betirako iltzatuta geratu zaizkio oroimean.



5. atala

GASTEIZ – DURANA – IKASBIDEA IKASTOLA



Vitoria-Gasteiz vista desde la cuarta torre, Santa María.

Iñaki 1981eko irailean etorri zen bere familiarekin Gasteizera. Gasteizko Burgos kaleko alokairuko pisu batean hasi ziren bizitzen. Eburne emaztearen gurasoak Arrasaten bizi ziren, eta aita, nahiko gazterik, bihotzeko batekin zendu zenean, ama bakarrik geratzen zela eta, Arrasatetik gertuago bizitzea erabaki zuten. Horrela, Arabako Foru Aldundiko ikastola zen Duranako Ikasbideara joan ziren biak batera lanera.

Algortatik Gasteizera aldaketa handia sumatu zuen. Hasteko, Gasteiz Algorta baino dezente handiagoa zen; Algorta herri bat da, eta Gasteiz hiri bat, nahiz eta herri handi baten itxura eduki. Hasieran hiri arrotza egin zitzaion, jendearekin harremana Algortan baino hotzagoa iruditu zitzaion, kostatako harremana izango balitz bezala. Ikastolan, berriz, ez zuen halako arazorik igarri, nahiz eta lantoki berri bat izan. Gogoan

du nola euskara batua bai, euskara batua ez auziarekin zebiltzala garai hartan. Beharbada, Iñakik berak aitortzen duenez, aurkitu zuen erdal giroa zen harremanetarako berak zuen prestutasuna makaltzen zuena. Algorta ere ez zen guztiz euskalduna, baina euskaldun asko bizi zen bertan, eta euskararekiko beste irekitasun bat zuten. Ez da euskara jakitea edo ez jakitea, baizik euskararekiko jarrera. Garai hartan Gasteizen euskara entzutea arraroa egiten zitzaion, eta askotan, kaletik zihoala, atzealdetik euskara entzuten bazuen burua biratzen zuen nortzuk ziren ikusteko. Gipuzkoako lagun batek esan omen zion ea Gasteizera euskararen misiolari joana zen.



La Plaza de los Fueros con nieve.

Bestalde, Iñakik gogoan du ikastolako gurasoek, asko gasteiztarrak, euskararekiko beste jarrera eta prestutasun bat zutela, eta 1981,82,83... urte haietan, gurasoen bilerak egiten zirenean, inon kabitu ezineko guraso pila joaten zirela ikastolara edozer gauzatarako laguntza



La Plaza de la Virgen Blanca con nieve

emateko prest. 1995etik aurrera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskolaren titulartasuna hartu ondoren ez zuten horrelakorik gehiago ikusi.

Iñakiren ustetan, gaur egungo Gasteizek -40 urte geroago- ez dauka garai hartako Vitoriaren antzik. Gaur euskararen erabilerak kezkutzen gaitu batez ere, dakitenen kopurua handia delako. Orain ez dago burua biratu beharrik euskara entzutean. Baina, oraindik ere badira “egun on” esanez agurtu eta “buenos días” batekin erantzuten duten Vitorianoak. Ez da ba zaila sikiera “egun on” esaten ikastea!

Urteak joan eta urteak etorri egoerak aldatzen joan ziren. Iñakiren aburuz, alde guztietatik egoerak hobetzen joan ziren, eta konturatu zen Gasteiz asko aldatzen ari zela. Behar bada konturatu gabe, pixkanaka-pixkanaka gasteiztar bihurtzen ari zen. Asko ziren hiriak ematen zizkion aukerak, eta berehala hasi zen hauek goxatzen. Nork esan behar zion, txikitari Matxinbentan bizi izandako erromeriak –Kizkitza edo San Gregorio ermitakoak- Gasteiz bezalako hiri

batean goxatzeko aukera izango zuenik, erroskila eta guzti. Olarizuko erromeria hunkigarria iruditu zitzaion lehenengo aldiz joan zenean. Bazirudien egun bakar batean urteak eta mendeak ospatzen zirela herri elkarte ederrean, iraileko arratsalde goxo batean. Eta zer esan Armentiaiko Prudentzio eguneko erromeriari buruz! Armentia iristea-rekin batera lehenengo aldiz ikusi zuen estanpa hark XVI. mendekoa zirudien. Basilikatxoaren inguru berde, eder eta zabal hartan hainbeste neska mutil koadrilatan, multzoka, lurrean eserita eta bakar batzuk txistuaren doinuekin dantzan ikustea zoragarria iruditu zitzaion. Iritsi bezain pronto, bertan zutik, begiak zabal eta belarriak erne denbora egin omen zuen. “Hau ez diat sekula ikusi!”



La romería o fiesta de Olárizu.

Iñakik dioskuanez, Euskal Herriko leku gutxitan ikusten da jendea, aste-ko edozein egunetan, frontoietan putxera jolasten esku pilotan, Gasteizko Foru plazako frontoi txikian ikusten den bezala, udara garaian batez ere. Beste horrenbeste gertatzen omen da kale-



La romería de San Prudencio en Armentia

ko txistulariekin. Andra Mari Zuriaren jaietan kaleetan zehar, blusa eta nesken koadrilekin batera, txistuak duen protagonismoa izugarria iruditzen zaio, Euskal Herriko beste hiriburuetan ematen ez dena. Argi du Gasteiz ezagutu eta dastatu egin behar dela; oharkabeen gustua hartzen zaio.

Orain arte Gasteiz aipatu da, Arabako hiriburua. Araba gehiena laua da, baita zabala ere, mendi eta ibarrekin, aberatsa. Iñakik beti esan du bizikletan ibiltzeko lurralderik ederrena dela, osatuena. 100 km erraz egin daitezke lautadatik irten gabe. Mendia gustatuz gero, bizikletan izerdi ederrak bota daitezke hankak ongi gogortzeraino. Lehenago Bizkaia bezala, Araba ere bizikletan ezagutu zuen Iñakik. Zenbat herri txiki, bide estu, mendi eta lautada pasatzen zituzten larunbatero. Udaberrian, Kuartangoko bi-deetan arnasten zuten arantza zuriaren lurrina gordea omen du usaimenaren memorian. Bizikletaz egindako ibilbide horietan konturatu zen Araba osoa -lur, mendi, iturri, ibai eta herri txiki - euskaraz ari zaigula izenez eta izanez; Euskal Herria dela zorionez, nahiz eta oraindik

ere badiren batzuk guztiz kontrakoa esaten dutenak, gure arbasoak baztertuz eta ahaztuz. 1985etik Vitoriana txirrindulari elkarteko partaidea da Iñaki, eta jarraitzen du izaten, nahiz eta orain bizikletan ez ibili.



En bicicleta y disfrutando Álava.



Iñaki con la camiseta de "La Vitoriana"



Ikasbidea, Durana. Bere ogibidea irakaskuntza zen, eta Duranako Ikasbidea ikastolan lan egin zuen, erretiroa hartu arte. 34 urteetan zehar lantokia bere etxea balitz bezala hartu zuen, eta maitatu zuen, beti ere hobetu nahian murgilduta. Bere egitekoa hezkuntza orokorra bazen ere, arte hezkuntzak izan zituen maiteenak bere jardunean: musika eta plastika. Haurren eta haur ez direnen barne adierazpenak lantzeko gairik ederrenak. Azken 10 urteetan musika bakarrik landu zuen, eta ongi aprobetxatu zuen esku artean zuen aukera euskara eta euskaltasunaren transmisioa egiteko. Horretan maisua zen Imanol Urbietta musikari eta pedagogoaz ederki baliatu zen. Musikako elementuak jorratzeaz gain, kantua zuen zutaberik garrantzitsuena. Ikastolako Haur Hezkuntzako 3 urteko haurretatik hasi, eta Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko kantu-bilduma bat antolatu zuen, ikasturtez ikasturte, eta kantu-liburuxka bat sortu zuen. Kantutegi honetako audioak ere ikastolako barne-sarean zintzilikatu zituen, irakasleek gela guztietan entzuteko eta erabiltzeko aukera izan zezaten.



Entrada a la ikastola Ikasbidea de Durana.



Patio y parte de uno de los edificios de Ikasbidea

Musikarekin, kantuarekin eta euskal transmisioarekin zerikusi zuzena zuen “Kantuz Blai” izeneko jaialdi-lehiaketak ere sortu zuen, oraindik bizirik dirauena. Famatu batzuk ere eraman omen zituen jaialdira umeen gogo-pizgarri: Imanol Urbietta bera, Mikel Urdangarin, Maixa Lizarribar, Gontzal Mendibil, Josu Zabala, Betagarriko kideak eta abar luze bat. Ikasbidearen 25. urterrenean Imanol Urbietaren omenaldia antolatu zuen, beste askoren laguntzaz noski. Mendizorrotzan 3.000 ume bildu zituzten Urbietak berak sortutako kantu eta koreografiaren emanaldi bat eskainiz, parte hartzaileek kantxa guztia betetzen zutelarik agerraldi bakoitzean. Ikastolako barne-bizitzan parte hartzailea izan zelakoan dago Iñaki, eta une askotan sortzailea ere bai, beti ere onena eman nahian. Ikasbideako logotipoa, esate baterako, berak sortua da.

Iñaki eta Edurne alabatxo batekin etorri ziren Gasteizera, baina familia handitzen joan zen urteak pasa ahal. Gasteizera heldutako urtean bertan 1981ean, Janire, bigarren alaba jaio zen. Ondoren jaiotakoa Amaia, eta azkena Xabier. Eztei-bidaian Europa guztitik ibili omen ziren Dyane 6 batekin kanpine-



tik kanpinera, eta bidaiatzeko era hori gustatu egin zitzaien. Geroztik ez dio bidaiatzeari utzi, familiarekin karabanan, eta bikotearekin furgonetan, batez ere, Espainia, Portugal eta Frantziatik.



La familia Lasa Arrizabalaga.

Gasteizen egindako 34 urteak ez ziren igaro Gasteiz eta Ikastolaren artean bakarrik. Beste afizio batzuk ere bazituen, eta denbora ateratzen zuen hauek ere jorratzeko, beti ere musikaren inguruan. Besteak beste, Araba Abesbatzako partaidea izan da 1987tik 2023ko maiatzaren 30ean abesbatza desegin den arte. Araba Korua 1968an sortu zen Gasteizen eta 55 urte eman ditu kontzertuak ematen. Iñakirentzat lagunarte zoragarri bat izateaz aparte, bere tenore ahotsa lantzeko eta gozatzeko leku aproposena izan da, eta bidaiatzeko aukera handiak eman dizkiona: Hungaria, Argentina, Frantzia, Italia, eta abar. Abesbatzaren amaierak penetan utzi ditu geratzen ziren partaide guztiak.



El logotipo y el cancionero de Ikastolaren.

Arantzazutik zekarren musikarekiko zaletasunarekin lotutako beste afizio bat ere bazuen. 1990ean bigarren eskuko bateria bat erosi eta bere iloba Mikelekin eta Aramaioko Arantzazurekin zenbait kantu eta dantza-musika jotzen hasi ziren afari eta ospakizunetan, "Txinparta" izenpean. Arantzazuk jarraitu ezin zuenez, Mikelen arreba, Joana, hasi zen trikitixarekin. 25 urte egin zituzen elkarrekin erromeria, herriko eta auzoetako festa, ezkontza eta abarretan musika jotzen. 2014ko abenduaren 6an, Oñatiko Gaztelekun eman zuten euren azken saioa familia, lagun, jarraitzaile eta nahi zuten guztientzat, mokadu eta trago artean denak betirako agurtuz.

Gasteiz eta Duranako urteetan sortu zen Iñaki-Olentzero pertsonaia, baina gai honek aparteko kapitulu berri bat merezi du.



6. atala

OLENTZERO



*El Olentzero contemplando Vitoria-Gasteiz
(Foto:Zubiko)*

Dena Andoni Egañak egindako telefono dei batekin hasi zen. Garai hartan bertsolaria Udaletxeko kultur teknikari lanetan zebilen. Deitu eta besterik gabe galdetu zion Iñakiri:

- Aizak Iñaki, abarkak ba al dituk?
- Bai, pare bat baditiat.
- Eta, festetako blusa bat eta txapela ere izango dituk, ezta?
- Bai, horiek ere baditiat noski.
- Praka urdinak ere izango dituk?
- Praka urdin batzuk ere bai.
- Ba... orduan, hi haiz Olentzero perfektua. Olentzero baten beharrean gaudek eta uste diat hi haizela itxurakoa. Egingo huke Gasteizko Udaletxerako Olentzero-ren papera?
- Sekula ez diat egin horrelakorik, baina besterik ez baduk aurkitzen kontatu nirekin.

Horrelaxe hasi zen Iñaki Olentzero lanetan Gasteizko Udaletxean 1991ko Gabonetan. Berarentzat mundu berri bat

zen eta ordura arte Olentzeroz entzun zuenarekin -ikazkin zikina, arlotea eta mozkorti bat zela- pixka bat lotsatuta ere sentitzen zen une batzuetan. Baina haurrek beragan zuten konfiantza ikusita, guztiei irribarre batez erantzuten hasi omen zen. Esku asko ukitu zituen, baita muxu batzuk jaso eta eman ere. Behin eta berriro ozenki "Olentzero!" deiadar egiten zuten, eta azkenean ohartu zen berari deika ari zirela. Urduritasuna, lotsa eta emozioa, dena nahastuta sentitu omen zituen Olentzeroaren bere lehen esperientzia hartan.



*Olentzero con el burro. Buen entendimiento.
(Foto:Zubiko)*



El Olentzero vigila desde el exterior (Lorea Fuertes)



Iñakirentzat lehen aldia zen, baina, ez zen Gasteizko lehen Olentzeroa. 1966an azaldu omen zen Gasteizko kaleetan lehenbiziko aldiz Olentzero “Hemengo Lagunak” mendizale elkarteak aterata. Geroztik, auzoetatik ere hasi omen ziren Olentzeroak edo Olentzero panpinak kaleetan ikusten, alboan astoa zutela. Dirudienez Udaletxeak laguntza ematen zien elkarte hauei gozokiak, intxaurrak edo gaztainak banatuz. Geroago Olabide Ikastolak, Indarra dantza taldeak eta Udaletxeak antolatu zuten Gasteiz mailako lehen Olentzero desfilea.

Hasieran idiek tiratutako gurdi bat zen Olentzeroren karroza. Abere asko kaleratzen ziren Olentzeroren desfilean: idiak, astoak, ardiak eta abar. Egia da abereak izutu egiten zirela halako jendetzaren aurrean, ez zen tratu egokia beraientzat. Duela hamar bat urte animaliarik ez erabiltzeko erabaki ona hartu zuten. Bere ibilbidean, Iñakik beste bi karroza desberdin ezagutu zituen, eta bietan eroso sentitu zen. Gauza bat ez zitzaion horrenbeste gustatzen: berrari begira jartzen zizkioten argi-fokuak. Berak haurrak eta jendea ikusi nahi eta halako argi-pirrintek itsutu egiten omen zuten.

Gasteizko Olentzerok janzkera eta arropa propioa izan du ia hasieratik. Lehen karrozarekin batera jantzi omen zuten gaur egun duen itxurarekin.

Mari Domingi 2014an azaldu zen lehenengo aldiz Gasteizko Udaletxeko Olentzerorekin batera. Bazen garaia! Olentzerorentzat laguntza handia izan

zen, batez ere, 24ko goiz partean haurrei Udaletxean ongi-etorria egiteko orduan, horrela lana banatu egiten baitzen. Baina hori anekdota hutsa da. Anek eta Iñakik negu-mugako pertsonaiaren esanahi mitologikoaren azterketa sakona egin zuten, eta garbi zeukaten – eta dute– Olentzero gizon eta Mari Domingi emakume aurkeztu zaizkigun arren, jatorrizko pertsonaia mitologikoaren generoak ez duela garrantzirik, biak ala biak pertsona mitologiko berdinak direla eta euren arteko beste erlazio guztiak soberan daudela. Ideia honen berri eskola guztietara zabaldu zen Udaletxeak argitaratutako idatzi baten bidez, eta oraindik ere egiten da. Ipuin berri bat ere idatzi zuten komiki itxuran argitaratzeko, baina hor geratu zen tiraderaren batean sartuta. Iñakik Olentzero izateari utzi bazion ere, Anek hor jarraitzen du Mari Domingi lanetan, Euskal Herriko beste hainbat Mari Domingirekin harremanetan, kolektiboki, ahalik eta mezurik eraikitzaileena zabaldu nahian.



Mari Domingi y Olentzero
(Foto: Alea)



Iñakik dioenez, askok uste dute mitologiak kontu zahar batzuk direla, umeei kontatzeko antzinako ipuin batzuk eta kitto. Kontu zaharrak direla badakigu, baina ez da egia funtsik gabekoak edo ipuin hutsak direnik. Mitologia esanahiez betetako metaforak dira, beste era batean azaldu ezin diren kontakizunak. Askotan oso mamitsuak, bizitakoen eta bizitzaren zergatirik sakonena adierazten dituzten kontuak. Hasteko, kontakizunaren sorrerako garaietan eta lekue-tan kokatu behar gara, eta ahalegindu une eta leku hartan sartzen. Europako beste herrialdeetan, batez ere iparraldean, eta Espainiako hainbat lekuetan, negu-mugako kultura guztietan dauden elementuak dira basoa, egurra eta sua edo argia (kandelak). Ez da urrutira joan behar bertatik bertara ikusteko. Duela 300 urte, egurrik gabe ez zegoen surik, eta surik gabe ez zegoen ez argirik ezta berotasunik ere neguko gau luze haietan. Basoa eta egurra behar-beharrezkoak ziren. Olentzero basoko pertsonaia da, ikazkina. Basoari eta egurrari gorazarrea egiten zaio Europako herrialde gehienetan, Euskal Herrian ere bai. Gabon enborra edo Olentzero enborra, enbor berezia, Gabon gauean beheko suetan erretzen zena, horren seinale bizia da. Gizakiok badugu dena gizaki bihurtzeko grin hori, eta Olentzero enborra ere, egurra, basokoa, pertsonaia batean bihurtu zen, Olentzero pertsonaian. Galizian “El Apalpador”, Kantabrian “El Esteru”, Asturiasen “El anguleiro” edo Katalunian “Tió de Nadal” enbor animatua dute..

Gasteizko Olentzero bezala, Iñakik 26 urteetan zehar egindako bidean pertsonaiaren inguruko prozesu bat ikusteko eta bizitzeko aukera izan du. Hasieran Olentzero ez zen denen gustukoa izan. Pentsa urte batean Santa Barbara aparkalekuko irteerako horman “Fuera Olentzero” idatzita ikustera ere heldu zela. Orduan bazen UA izeneko alderdi politiko bat, eta sortzaileetako bat zen Pablo Mosquerak Olentzeroren aurkako artikulu bat idatzi zuen 1997an. Badirudi Pablo Mosquera jaunak, galiziarra izanik, Lugokoa, ez zekiela eurek ere bazutela Gabonetako pertsonaia bat “El Apalpador” izeneko, eta Olentzero nazionalistek asmatu zutela zioen. Hasierako urte haietan, Iñakik elkarrizketa asko izan zituen egunkarietan eta irratietan. Ez daki denak intentzio onekoak ziren, batzuetan pikardia gehiegi sumatu baitzuen. Behin COPE irratian Errege Ma-goekin zer moduz konpontzen zen galdetu zioten, beste galdera konprometitu askoren artean, eta Iñakik zera erantzun zuen: “Urtero afaltzen dugu elkarrekin eta ondoren musean ere jokatzen dugu, baina beti galdu egiten dut, eurek hiru errege baitituzte. Gainera komeni zait ongi konpontzea, eurak ni baino dozena bat egun beranduago datoz eta niri ahaztu zaizkidan jostailuak eurek banatzen dizkirate”. Askotan Olentzerok berak ere ez zekien galderei erantzutea ez zen erraza. Askoren galdera omen zen ere ea Mari Domingi bere emaztea zen. Eta erantzuna beti berdina zen, ez: Mari Domingi Olentzeroren parekidea da, ez gehiago, ez gutxiago.



El Olentzero también escribe (Foto: Zubiko)



Lleva pipa, pero no echa humo (Foto: Zubiko)

Belaunaldi oso bat egin zuen Iñakik Olentzero lanetan, eta 26 urteetan denetarik ikusi zuen. Hasieran ume bezala bere belaunetan eduki zituen neska-mutilak, jadanik helduak, euren seme-alabak eskutik helduta Olentzero agurtzera joaten ziren urte batzuen buruan. Horrelako egoerek zirrara berezia sortzen zioten. Behin bere karrozatik entzun omen zuen nola gazte koadrila batetik ozenki esaten zuen batak: “¡si cuando yo era pequeño era el mismo Olentzero!” Azken urteetan haur asko izan zituen bere altzoan, ez soilik bertakoak, kanpotik etorritakoak ere bai. Ez daki zergatik, baina indar handigoz estutzen zituen hauek. Aitortzen

du Olentzerorengana gerturatutakoan haur txiki batzuk beldurtu egiten zirela negar egiteraino. Bakarren batzuk ongi estutzen zitzaizkion, eta baten batek Olentzerori belaun gaina bustita ere utzi izan dio. Hauek denak huskeriak dira gehiengoaren aurpegiak ikusita. Zer nolako konfiantza, mirespen, eta ilusio aurpegiak Olentzerorengana gerturatzean, beti prest Olentzeroren aurpegi zikin hartan muxuak emateko —Iñakik aurpegia benetako ikatzarekin ongi zikinduta eramaten baitzuen— eta bere magalean esertzeko. Aaa! eta amak edo aita ederki asko aprobetxatzen zuen une hori seme, alaba edo biei batera Olentzerorekin argazia ateratzeko. Las-tima, denbora gutxi zutela hitz egiteko edo une hori apur bat gehiago gozatzeko, zain zeuden umeen ilera amaigabea baitzen.

Gasteizko kaleetan zehar egindako arratsaldeko desfilea amaitu eta Plaza Berrian zeuden ume eta gurasoak Udal-letxeko balkoitik agurtu ondoren, Olentzerok berak inonaturako Olentzeroren abestia kantatzen zuten ahots batean eta “a capela” bertaratutako guztiak batera. Olentzerori marrubi azala jartzen zitzaion une hunkigarri horretan; benetan, ikustekoa, entzutekoa eta han egotekoa zen.

Baina Iñakik bazuen beste zeregin bat ere 24ko ilunabarrean: Gasteizko bi ospitaleetako haurrak bisitatzea. Hasieran Santiago eta Txagorritxukoak ziren, eta azken urteetan Txagorritxukoak bakarrik, Santiagon gutxi eta oso egoe-



ra berezietan zeudelako. Edozein umek erakartzen bazuen, nola ez Gabonetan gaixorik zeuden haurrak. Askotan bihotza urtzeraino hunkitzen zen, Olentzerori begiak gorritu arte, baina ez ardoarekin, penarekin baizik. Umeak askotan oso txikiak ziren, eta ez daki konturatzen ziren Gabonetako pertsonaiaz, baina gurasoak bai. Inori ez zaio gustatzen Gabonetan ospitalean egotea, tristea da. Erizainek ilusio handiarekin hartzen zuten, denek nahi zuten Olentzerorekin argazki bat, zinemako artista ezagunena baino arroago sentitzen omen zen. Euren lanak eta begiruneak horrenbeste merezi du, noski.

Iñakik badaki Olentzeroren atzean opariak eta jostailuak daudela, hazten eta hazten doan kontsumoaren mamu aseegin hori, eta horregatik kritikatzin

dute Olentzero Noelizatzen ari dela esanaz. Ahots horiek arrazoia dutela konturatzen da, eta badaki kontsumoaren hatzaparretatik ihes egitea ia ezinezkoa dela. Baina, jakitun da ere, hori gure esku dagoela, eta ez haurren ilusioetan. Pertsonaia mitologikoa izanik, Olentzerok ez du ulertzen kontsumoari buruz ezertxo ere, gizakiak, gizarteak jarri du egoera horretan. Guztiz ihes egitea zaila bada ere, kontsumoa kontrolatu daitekeen gaitza da. Gutako bakoitzak kontrolatu behar duena, garrantzia emanez garrantzitsua denari: Olentzero pertsonaia mitologikoari, ez bere izena eta etorrera aprobetxatuz gure kontsumo goseak askatzen dituenari. Haurrek guzti honetaz ez dakite ezer ere ez. Gure esku dago Olentzeroren benetako etorkizuna.

7. atala

AZKEN URTEAK



Cada uno tiene que escoger su camino.

2015eko urtarrilaren 26an, bere urtebetetze egunean, hartu zuen laneko erretiroa. Otsailaren 13an zendu zen, 38 urtez bere emaztea izandako Edurne Arrizabalaga aramaioarra, urte eta erdiko gaixotasun baten ondorioz.

Kolpe latza. Ezustekorik ez, susmatzen zuelako azkenean zer gertatuko zen. Baina, gertatzen denean, ezin sine-



Son pocos los caminos tan limpios y rectos

tsi gertatutakoa. Bizitzan gerora begira sortzen diren asmoak eta egiten diren aurreikuspen guztiak, erretiratu ondorengo biziberri eta bizinahiak bat-batean deuseztatzen dira. Ordura arte bizitako guztia ere barrotezko ate batek kolpe bortitz batez ixten du. Iragana gogoratzen da baina ez da lehen bezala. Amaitu da. Eta... orain zer? Osasun kontuetan zaplada ederrak hartutakoa da Iñaki, aspalditik izandako gorabeherekin, baina hura bortitzegia izan zen.

Dena galdu zuela uste izan arren, konaturatu zen hori ez zela egia. Seme-alabak eta bilobak ondoan zituen. Iragana itxi zuen ateak ez zuen dena ilunpean gorde. Aita eta aittette maite zuten haiek han zeuzkan. Senideak ez ezik, egunerokotasunean, eta gehienetan oharkabea, alboan izaten diren lankide eta lagun guztiek babestu zuten, eta hauen

berotasunak berpiztu zuen. “Oraindik ere norbait banaiz, maite naute, hemen nago, betiko lekuan”.

Hala ere, bakardadea nahiago zuela aitortzen du, hartutako kolpearen zauriak sendatu artean behintzat, nahiz eta maitasun eta berotasun hori bene-benetan eskertu. Baina ez zen ilunpetan sartu eta bere saminaren armairuan gorde. Hasieran, etxetik irten eta bakar-bakarrik Durana inguruetako auzo-bideetan zehar ibilaldi ederrak ematen zituen. Udaberri aurreko lehen txori kantak entzunez -beti ere kukua noiz entzungo- eta bide bazterreko lehen lore txiki lotsatiak begiztatuz. Zenbat denbora pentsatzeko eta bizia dastatzeko! Ordura arte bizikleta eta errepedea zituen maite, baina orduan abiadura motelean eta lurretik gertu, pausoz pauso, patxadan egotea nahiago zuen; bizia zuen maite inoiz baino gehiago.





Paseo luze haietan bere barneak hainbat eta hainbat galdera egin zizkion buruari. Galdera gehienak aspal-dikoak ziren, batez ere existentzialistak, eta beste batzuk uneko egoerari buruzkoak: “nor haiz hi?, zer haiz?, nondik hator? nor duk hire Jainkoa?”... alde batetik; eta bestetik: “zer egin behar duk orain?, zertara dedikatuko haiz aurre-rantzean?...”

Betiko goxo-laguna faltan eta, erretiratuta zegoenez, nahiko denbora zeukan. Etxean zegoenean batez ere irakurtzeari ekiten zion eta zerbait idazteari. Eguraldi onarekin, ahal zuen guztietan, ibiltzera edo mendira joaten

zen. Gaztetako mendirako zaletasuna berpiztu zitzaion. Araba Abesbatzako Andoniri eta Xabi mendizaleari esker, ia astero mendi desberdinetara joaten hasi zen. Bikote honekin eta bere adin berekoak diren Matxinbentako Fermin, Patxi, David eta Juan Kruz lagunekin. Lau urtetan 30 gailur inguru egin zituen, hauetako batzuk bi edo hiru aldiz. Gaur egun, ahal duenean eta lagunik badu, bakarrik ez baita ausartzen, mendira joaten da.



Iñaki en la cumbre de Txindoki.



La hermosura de los montes de Aralar

Iñakik ongi bereizten ditu liburuek eta naturak – lurra zapaltzeak - ematen



eta emango diotena. Derrigorrezkoa eta beharrezkoa da natura zuzen zuzenean sentitzea eta berarekin bat egitea. In-
gurutzen gaituen guztia zure parte sen-
titzea, eta zeu, zerorri, natura zarela bi-
zitzea. Bigarren hau zailagoa da. Kaletar
batek sentimendu hauek garatuta eduki
ditzake eta, alderantziz, natura giroan
bizi den batek sekula sentitu ez. Berdin
gerta daiteke ikasia den pertsona bat
eta ikasketarik gabeko beste pertsona
baten artean. Gerta daiteke “jakint-
suak” naturarekiko inolako sentimendu
berezirik ez izatea eta, aldiz, ikasi gabea
naturarekin bat eginda bizitzea.

Zertarako irakurri eta hausnartu? Gal-
dera hau garrantzitsua izanik ere, beste
hau ez da gutxiagorako. Zer irakurri?
Munduan milioika liburu daude eta bi-
zitzia laburregia da denak irakurtzeko.
Arrazoi asko egon daiteke liburu bat
edo bestea aukeratzeko orduan, eta
dena da zilegi. Irakurtzearen plazer hut-
sak ere balio du, noski. Baina Iñakik ba-
rrera galdezka zeukan eta hausnarrean
zebilen aspalditik. Antzeko galderei
erantzun nahian idatzitako liburuak ere
badira, eta beharbada horietako batek
asko lagundu dezake erantzunak aurkit-
zen. Liburu batek naturarekiko harre-
mana suspertu dezake edo naturarekiko
sentitzen duzun horren zergatia argitu.

Esan bezala, Iñaki irakurle eskasa izan
zen bere bizitzan, eta hastea nekeza iza-
ten omen da beti. Baliteke beharrik ere
ez sentitzea. Alargundu eta berehala
Angel Lertxundiren “ZU” izeneko ele-
berria irakurri zuen. Izan ere, Angelen

emaztearen gaixotasunaren inguruan
idatzitako eleberria zen, eta egoera har-
tan Iñakiri ongi zetorkion gaia. Ondoren,
lehenago irakurtzen hasi eta utzitako
liburu bati heldu zion: Eckart Tollerren
“El poder del ahora”. Liburu horrekin
ari zela beste bat aurkitu zuen, Enrique
Martinez Lozanoren “Qué Dios y qué
salvación”, eta berriz ere Eckartena uz-
tea erabaki zuen, bi urte geroago zail-
tasun gutxiagorekin osorik irakurtzeko.
Ondoren etorri ziren Willigis Jagerren
“La ola es el mar” liburua eta Ken Wil-
bereren “Después del Edén” eta beste
hainbat autore. Aipatu egileen beste
hainbat liburu ere irakurri ditu.




Los libros ayudan a despertar, a abrir los ojos.

Bere bilatze eta arakatze horretan
gauza batek bestea eskatzen zion. Ale-
gia, unibertsoan den guztia lotuta da-
goela eta ezin dela gizakia bere osotasu-
nean ulertu unibertsoaren handitasuna
bera (astronomia), bertako elementu-



rik txikienaren ezagutza (fisika kuantikoa), biziaren eboluzioa orokorrean,



La naturaleza da la opción de convivir la vida

giza kontzientziaren garapena, filosofia eta pentsamenduen ezagutza, erlijioen ekarpenak (mitologiak) eta beste hainbat alderdi landu gabe. Une honetan, adibide bezala, Diarmuid O'Murchuren "Teología cuántica" irakurtzen ari da; fisika berriaren inplikazio espiritualak.

Idazten berriz, duela hiruzpalau urte hasi zen. Bizitzako hausnarketetan ikusten edo sentitzen zuena besteei adierazteko gogoia sartzen zitzaion, eta zerbaitetarako balioko zutelakotan, batzuk argitaratu ere egin zituen, hobeki esanda, argitaratu dizkiote egunkari eta aldizkari desberdinetan. "Askotan oso gutxi behar da bizi garen lozorrotik esnatzeko. Norbait ukitzen badut esnatzeko moduan nire egitekoa bete dut. Ez diot inori ezer erakutsi nahi, are gutxia-

go inposatu; begiak irekitzen lagundu besterik ez".

Iñakiren esanetan, bizitza bide bat da, norberak egin beharreko bidea. Txikitzen denok bide berdinetik bidaltzen ahalegindu ziren, gure onbeharrez eta gogo onez seguruenik, baina benetako bidea norberak egin behar du. Bideak, batzuetan, luzeak, baina, zuzenak eta garbiak dira; besteetan okerrak, eta ez hain garbiak. Bidea ikusiz gero, gutxienez, badakizu nondik jo, baina askotan egunerokotasunaren sasiek ez dizute biderik ikusten uzten. Bizitzako lozorrotik esnatuko bagina, agian zerbait ikusten hasiko ginateke, baina bizimodu itsu batean lelotuta bizi gara.

Egia esan, ez omen da erraza zoriontsua izatea, baina Iñakik bidean doala uste du, eta gaur egun zoriontsua sentitzen da. Ez du lotsarik esateko, bere barnean eta ingurunean bizi sentitzen duela, eta bizitasun horrek berpiztu omen du bere bizitza. Osasunez ongi aurkitzen da, ondasunez ez du ezer gehiago behar eta maitasunez inguratua sentitzen da. Badu, gainera, beste goxo-lagun bat, biderako eta gailurrerako: Kontxi Aizarna – duela 40 urte elkar ezagutzen dutela. Bera izan da bere bizi-berritzearen hauspo goxoa. Bakoitzak bere bidea eginaz, elkarren ondoan, elkar lagunduz, goxatuko omen dute bizitza.



URREZKO

REVISTA DE CELEDONES DE ORO



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

